

**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN OINARRI
ARAUTZAILEAK – 2. MOTA ENPLEGUA SUSTATZEKO
2016KO TOKIKO EKINTZETARAKO DEIALDIAREN BAITAN**

1. ARAUDI ERREGULATZAILEA

Oinarri hauek aplikatzeko eta interpretatzeko, kontuan hartu behar da honako arau hauetatik ondorioztatutako esparru arautzailea:

- a) Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2016ko ekainaren 15eko Ebazpena (114. zenbakiko EHAA, ekainaren 16koa). Horren bidez, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2016ko diru-laguntzen deialdia argitaratu zen.
- b) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE).
- c) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudia onetsi duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (uztailaren 25eko BOE).

Nolanahi ere, Leartibai Garapen Agentziari egokituko zaio oinarri hauek eta horietatik ondorioztatzen diren dokumentu guztiak interpretatzea eta horiek betetzean sortzen diren zalantzak ebaztea.

2. DIRLAGUNTZAREN XEDEA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda eta langabezian dauden pertsonen eta Lea-Artibaiko herrietan (Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar) kokaturik dauden enpresek egingo dituzten merkatu arrunteko kontratazioak laguntzea da.

Publizitate, lehia eta objetibotasun jatorrian oinarrituz eta gardentasun parametropean, sustatzen da araudi hau ahalik eta hedapen gehien izan dezan eskualdeko enpresa eta langabetuen artean.

3. ERAKUNDE ONURADUNEN BALDINTZAK

2016ko ekainare 15eko Ebazpenaren bidez jakitera emandako deialdian, adierazitako “2. mota.– Kontratatzeko laguntzak” izeneko laguntzak eskuratu nahi dituzten enpresek deialdi horretan arautzen diren betekizun guztiak bildu beharko dituzte. Hauek dira, besteak beste:

- a) Legalki eratuta egotea eta sozietatearen egoitza Lea-Artibai eskualdea osatzen duen udalerriren baten izatea.
- b) Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketa eta Ogasunaren zerga arloko betebeharrak egunean izatea.

- c) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdua zigor edo administrazio arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege debekuetan sartuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne.
- d) Ondorengo erakundeak ezin izango dira diru-laguntza hauen onuradun izan:
- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horien menpeko edo haiei lotutako erakundeak.
 - Enplegu zentro bereziak.

Onuradunek oinarri hauek arautzen duten laguntza programan parte hartzen duten bitartean bete beharko dituzte baldintza horiek.

4. KONTRATAZIOEN BALDINTZAK

A) Kontratazioen ezaugarriak

Kontratuen gutxieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da, eta edozein kontratazio modalitatearen bitartez formalizatu ahalko da, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratu bidez izan ezik. Halaber, kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan ahalko dira, gutxienez lanaldiaren % 50ekin.

2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko azaroaren 30 bitartean egindako kontratazio eskabideak onartu eta baloratu egingo dira. Eskariak aurkezteko epean kontratua egin barik badago, kontratu hori egingo denaren hitza eman beharko da.

Kontratazioak edo kontratazioek kontratatutako pertsonak sartu aurreko 3 hilabeteetan enpresan egondako batez besteko plantila osoaren gainean enpleguaren sorrera garbia ekarri beharko du.

Kontratazioa, gutxienez, sei hilabetez egon behar da indarrean eta, 2017ko maiatzaren 31 baino lehen. Bi kasuetan kontratazioak diru-laguntzaren amaieratik harantzago luzatu ahalko dira, baina geroko datei dagozkien kostuak ez dira inolaz ere diruz lagunduko.

Lan kontratuak kasu bakoitzean eskatutako edo diruz lagundutako gutxieneko iraunaldiaren aurretik suntsitzen badira, emandako diru-laguntza itzuli beharko da, kontratazioa ordeztu ez bada, eta suntsipen hori kontratugilearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu ezean. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa lan kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan murriztuko da.

Zirkunstantzia hori dokumentatu beharko da. Edonola ere, edozein aldaketa eginez gero, aurretik jakinarazi beharko da, baja ordezkatu zein ez ordezkatu. Baja ordezkatzan bada, berehala hasiko da beste pertsona bat lanean, eta, hala badagokio, laguntza diruz laguntzeko ezarritako lanpostu, kategoria-profesional, lanaldi mota, kontratu mota eta kolektiboaren profil berberak errespetatuko dira.

B) Kontratutako langileen baldintzak

Diru-laguntza honen baitan kontratatutako langileek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Kontratazioa hasi baino lehen Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatutako langabea izatea.
- Lea-Artibai eskualdea osatzen duten udalerriren batean erroldatuta egotea.

Ez da diruz lagunduko ezkontidea, ondorengoak edo enpresaburuarekin, enpresa kontrola daukatenekin, zuzendaritza karguak dituztenekin edo sozietateko forma juridikoa duten enpresetako administrazio organoetako kideekin bigarren mailara arteko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duten gainerako senideak kontratatzea, ezta administrazio organoetako kideak kontratatzea ere. Horretarako, enpresa eskatzaileek alde horiek ulertzen dituztela adierazten duen zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

5. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Jardunaldi osoan eta sei hilabete edo luzeagoa den kontratu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 6.000 eurokoa izango da. Halaber, jardunaldi murriztuko kontratuen kasuan jasotako diru-laguntza proportzionala izango da.

Erakundeak 37.435,44 euro bideratuko ditu laguntza ekonomiko hauetara eta estimatzen da 7 proiektu diruz lagunduko direla. Era berean, honela banatuko dira proiektu horiek:

- Sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko kontratuko 6 laguntza.
- Sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi partzialeko (% 50 baino gehiagoko lan jarduna) kontratuko laguntza 1.

Enpresa bakoitzak langile bat kontratatzeko laguntza jaso ahal izango du. Hala ere, gainontzeko eskariekin aurrekontua ez bada agortzen, diruz lagundutako kontratu bat baino gehiago eskatu ahal izango ditu.

Halaber, inoiz ez da izango diru-laguntzaren zenbatekoa soldaten kostuaren (kontratua amaitzeagatiko kalte ordaina eta enpresari dagozkion Gizarte Segurantza kuotak barne) %75a baino handiagoa izango.

Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2016ko ekainaren 15eko Ebazpena (114. zenbakiko EHAA, ekainaren 16koa), zeinaren bidez, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2016ko diru-laguntzen deialdia argitaratu zen, eta diruz lagungarriak ziren kontrazioetarako zenbait baldintza ezarri zituen: alde batetik, kontratuen %40a gutxienez emakumeen aldekoak izan behar direla; eta, beste aldetik, kontratuen %15 55 urtetik gorako pertsonak sinatu behar dituztela. Gauzak horrela, erakunde ebazleak eskaeren jarraipena egingo du, baldintza horiek betetzen direla bermatzeko. Ez betetzeko arriskua egonez gero, eta zehaztasun hauek ez betetzeko arriskua saihesteko, kolektibo horietako kontratazioak adierazten dituzten eskaerak ebazpenerako lehentasunetan aurre hartuko diete horrela egiten ez dutenei, erakunde ebazlearen iritziz, baldintza horiek betetze aldera.

Gauzak horrela, emakumeentzako egitea aurreikusten zen kontratu bat eta ebatzi ondoren horrela egin ez bada, diru-laguntza hori bertan behera egingo da eta beste eskari bat egin beharko du.

Deialdi honetan aurreikusitako diru laguntza kopurua murriztu egin liteke aurrerago zehaztutako Ebazpeneko baldintzak betetze aldera.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu eta helburu berberengatik beste administrazio edo erakunde publikoek ematen duten beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzeko, Gizarte Segurantzak ematen dituen hobariak izan ezik.

6. ESKARIAK AURKEZTEA

a) Aurkezteko epea

Eskariak oinarriak argitaratzen direnetik 2016ko azaroaren 11ko 14:00ak aurkeztu ahal izango dira.

b) Aurkezteko lekua

Eskariak Leartibai Garapen Agentziaren bulegoetan aurkeztu beharko dira, jendaurreko ordutegian: Markina-Xemeingo bulegoa (Xemein etorbidea 12-A), Lekeitioko udala (Gamarra 1) edo Ondarroako bulegoa (Kanttoipe s/n).

Era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, 38.4 artikuluan aipatzen diren Herri-Administrazioaren erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

c) Aurkeztu beharreko agiriak

Deialdi honi dagokion laguntzak lortzeko eskaria egiteko www.leartibai.com web gunean dagoen izen emate orria erabiliko da.

Eskari orria behar den moduan beteta (I. eta II. eranskinarekin batera) eta erakundearen ahalordetza duen pertsonak sinatuta eta zigiluarekin aurkeztu beharko da ondorengo dokumentazioarekin batera:

- Lege ordezkariaren NANaren fotokopia eta ahalorde eskritura, hala denean.
- Enpresaren IFK kopia

7. AKATSAK ZUZENTZEA

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, 10 lanegunetako epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean aurreikusten den bezala.

8. EMATEKO PROZEDURA

Eskarien hautaketa eta diru-laguntza emateko prozedura norgehiagokoa izango da. Kasu honetan norgehiagokoa ulertuko da diru-laguntzak ematerakoan aurkeztutako eskari guztien arteko konparaketa bat egingo delako, euren arteko lehentasuna zehazteko atal honetan agertzen diren balorazio irizpideak erabiliz, eta, deialdian agertzen den aurreikusitako kredituaren barne, irizpide hauen arabera balorazio altuena lortu dutenei esleituko zaie.

Aurkeztutako eskabideak baloratzeko ondorengo balorazio irizpideak izango dira kontutan:

BALORAZIO IRIZPIDEAK	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
1.- Erakunde onuradunaren ezaugarriak	
Eskualdeko Enplegu Planaren barne zehazten diren sektore estrategikoetara (osasuna, ongizatea eta soziosanitarioa; elikadura osasungarria; ekonomia berdea; osasun eta ongizateko turismoa eta turismo jasangarria) kontratuek izango duten egokitzapena	25 puntu
2.- Erakunde onuradunaren tamaina	

0-9 langile, 25 puntu 10-49 langile, 15 puntu 50-99 langile, 10 puntu 100-250 langile, 5 puntu	25 puntu
3.- Kontratuaren iraupena	
Mugagabea, lanaldi osoan, 25 puntu Mugagabea, lanaldi murriztuan, 25 puntu 6 hilabete baino luzeagoa, lanaldi osoan, 10 puntu 6 hilabete baino luzeagoa, lanaldi murriztuan, 5 puntu	25 puntu

Berdinketa kasuetan Leartibai Garapen Agentzian eskariak duen sarrera erregistroko hurrenkera gailenduko da.

Halaber, kontuan izan behar dira kontratazio hauek egiteko mugak, 2016ko ekainaren 15eko Ebazpenak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren , zeinaren bidez argaitara ematen baita enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2016ko dirulaguntzen deialdiak, ezarritakoak.

Edozein kasutan, Leartibai Garapen Agentziak eskaria egiten duten erakundeei dokumentazio edo informazio gehigarria eskatu ahal izango die aurkeztutako eskariaren ebazpen eta ebaluazio egoki bat egiteko.

Behin dirulaguntza ebatzita eta kontratua formalizatuta, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira, ebazpenenaren jakinarazpenean ezarritako epean:

A.- Kontratazioaren inguruko dokumentazioa

- Kontratutako pertsonaren NANaren kopia.
- Kontratutako pertsonaren errolda ziurtagiria.
- Kontratutako pertsona Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa (eskaera berritzeko egiaztagiria —DARDE— aurkeztea edo Izena emate aldiei eta lan egoerari buruzko txostena), indarrean egon behar da eta kontratazioaren aurrekoa izan behar da.
- Lan kontratuaren kopia, alde biek sinatua eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari berri emanda.
- Kontratutako pertsona Gizarte Segurantzari alta emanda dagoena ziurtatzen duen dokumentua.
- Ezkontidea edo enpresaburuarekin, enpresa kontrola daukatenekin, zuzendaritza karguak dituztenekin edo administrazio kontseiluko kideekin bigarren mailara arteko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetsasuneko harremana duen senidea ez dela dioen zinpeko adierazpena
- Berariaz eskatutako beste edozein agiri.

B.- Erakunde onuradunaren agiriak

- Kontratatzen den pertsona lanean hasi orduko 3 hilabeteetan izandako batz besteko langile kopurua adierazten duen Gizarte Segurantzak igorritako ziurtagiria.
- Kontratatzen den hilabeteari dagokion TCa.
- Berariaz eskatutako beste edozein agiri.

9. PROZEDIMENDUAREN INSTRUKZIO ETA EBAZPENERAKO ESKUMENDUN ERAKUNDEA

Leartibai Garapen Agentzia izango da instrukzio eta ebazpenerako eskumena duen erakundea.

10. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren ordainketa era batera egingo da azken justifikazioaren dokumentazioa aurkeztu ostean, hau da, kontratuaren iraupena eta ondorengo paragrafoan deskribatzen diren baldintza guztiak frogatu ostean.

Diru-laguntza honen erakunde onuradunak kontratazioa bukatu eta gehienez hilabeteko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar du:

- Exekutututako proiektuaren azken memoria, zehaztuta: kontratu mota, kontratatu den pertsonaren kolektiboa, iraupena, lan jardunaldia, aplikatutako hitzarmena, lansari eta gizarte segurantzaren kostea eta diruz lagundutako zenbatekoa eta kontratatu den pertsonak izandako zereginak.
- Laguntza honen iraupenari dagozkion hileroko nominen kopiak.
- Laguntza honen iraupenari dagozkion hileroko TCen kopiak.
- Lansari gastuen eta gizarte segurantzako gastuen ordainagirien kopiak.
- Ogasunarekiko eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak eguenean beteta dituela adierazten duen ziurtagiriak.
- Berariaz eskatutako beste edozein agiri.

11. EZ-BETETZEAK ETA LAGUNTZAREN ITZULTZEA

Laguntzak ematea ekarri duten baldintzetako baten bat galdu dela, onuradunaren betebeharretakoa baten bat bete ez dela edo emandako datuak edo aurkeztutako ardurapeko adierazpenetakoa edukia faltsua dela egiaztatzen bada, enpresa laguntza programatik baztertuko da, kobratu gabe dauden diru-kopuruak jasotzeko eskubidea galduko da, eta Leartibai Garapen Agentziak eskumena izango du jada kobratu diren diru-kopuruak itzultzeko eskatzeko.

- Diru-laguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak beste diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Halaber, diru-laguntza ez da ordainduko, pertsonak edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.
- Ez-betetzea, enpresaren bazterketa, ondoriozko itzulketaren betebeharra eta kobratu gabe dauden laguntzak jasotzeko eskubidea galtzea Leartibai Garapen Agentziaren bidez adieraziko dira. Ebazpen horren aurretik, Sozietateko zerbitzu teknikoek gaiari buruzko txostena egingo dute.
- Itzultzeko epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Salbuespenez, enpresak eskatzen duenean luzatuko da epea, beren-beregi arrazoitutako zioengatik bada.

Oro har, enpresari edo horrek kontratatutako pertsonari egotz dakiokkeen eta Lanbidek eman eta Ispasterko Udalak jaso beharreko diru-laguntza murriztea dakarren edozein betekizunen ez-betetzeak ondorioa ekarriko dio laguntzaren hartzaileari, modu proportzionalen ondoriozko murrizketa eraginda.

12. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- a) Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2016ko ekainaren 15eko Ebazpenean eta oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzea.
- b) Laguntza horren kontura jasotako diru-laguntzei dagokienez, fiskalizazio eginkizunak gauzatzeko eskatzen zaion informazioa ematea Leartibai Garapen Agentziari.
- c) Leartibai Garapen Agentziari hitzartutako baldintzen edozein aldaketaren edo kontratazioaren ondoren sortzen den edozein arazoren berri ematea unean-unean.
- d) Leartibai Garapen Agentziarekin lan egitea, Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2016ko ekainaren 15eko Ebazpenean adierazitako kontrataziorako laguntzen onuraduna izateagatik (hasieran zein ondoren) eskatu ahal zaizkion betebeharrak guztiak betetzeko.
- e) Kontratatuko den pertsonak egin beharreko zereginetarako behar dituen material eta jantziak errazteko konpromisoa hartzea.
- f) Gainera, Leartibai Garapen Agentziak diruz lagundutako proiektuari lotuta egokitzen dituen ikuskapen guztiak egin ahalko ditu.

13. ERREKURTSOAK

Dagokion ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Hala ere, horren aurka berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahalko da ebazpena eman duen organoaren aurrean hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epean.

14. DATU PERTSONALEN BABESA

Erakunde eskatzaileak diru-laguntza honen eskariaren aurkezpenarekin bere baimena ematen du, eta bertoko zehaztapan guztiak osotasunean onartzen dituela eta deialdiko ezaugarri eta betebeharrak guztiak betetzen dituela adierazten du.

Era berean, eskari honetan batzen diren Datu Pertsonalak bere onespenez jaso direla eta, datuok tratamendu automatizatua izatea eta Leartibai Garapen Agentziak behar bezala onartzen dituen fitxategietan sartu ahal izateko baimena ematen du. Datuon erabilera Garapen Agentziaren kudeaketa erabilerarako bakarrik izatea, euren lagapen edo komunikazioa beste Administrazio Publiko edo euren Erakundeetara egin ahal izango da beti ere urriaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera